


HAZINNOVA

Zure ETEak
berritzeko eta
hobetzeko behar
duen laguntza
2025

HAZINNOVAk zurearen moduko ETE-ei lehiakorragoak izaten laguntzen die, berrikuntza-proiektu txikiak modu azkar eta seguruan eginez.

Aurkibidea

01 / ETE bat bazara	4
02 / Eta hauetakoren bat behar baduzu	5
03 / HAZINNOVArekin zure ETEak hauxe jasoko du	6
04 / Zertan berritu nahi duzu	8
Merkatuaren garapena	8
Produktua	8-9
Bezeroak	10
Merkatu berriak	11
Negozio-eragiketak	12
Ekoizpen jasangarria	12
Logistika jasangarria	13
Efizientzia kudeaketan	14
Talentua / Pertsonak	14
Ekonomia- eta finantza-kudeaketa	15
Administrazio-prozesuak	16-17
05 / HAZINNOVA eskatzea oso erraza da	18
06 / Egingo al dugu berrikuntza-proiektu bat?	19
Inspiratu arrakasta-istorioekin	20



ETE BAT BAZARA

5 eta 249 langile arteko enpresa,
EAEkoa, eta sektore hauetako
batean jarduten duena

Industria:

- Industriako eta azken kontsumorako makinak, ekipoen, osagaien eta ondasunen ekoizpena
- Elikagaien ekoizpena, prozesatzea eta banaketa
- Natur baliabideen (mineralak, gasa, petrolio, materialak) erauzketa
- Energia (elektrizitatea, gasa) sortu eta banatzea
- Uraren eta hondakinen kudeaketa

Lotutako zerbitzuak:

- Handizkako merkataritza
- Garraioa eta biltegiatzea
- Arkitektura, ingeniari eta aholkularitza
- IKTak eta telekomunikazioak
- Finantza- eta aseguru-jarduerak
- Kultura eta sormena (edizioa, publizitatea eta marketina)

Salbuespenak:

- 2022, 2023 eta 2024 urteetan “Innobideak” programaren onuradun diren enpresak.
- HAZITEK 2022, 2023 eta 2024 programan lider diren enpresak eta 2025ean lider diren eskatzaileak
- HAZINNOVA programan, enpresek gehienez 8 mikroproiektu egin ahal izango dituzte, 2021, 2022, 2023, 2024 eta 2025 urteetako deialdiak kontuan hartuta.

ETA ZURE BEHARRERAKO BAT BADA

1. Produktiboagoa izatea

Saltzen duzun hori azkarrago, jasangarriago eta merkeago ekoitzi ahal izatea.

2. Gehiago saltzea

Zure oraingo bezeroek pozik jarraitzea eta beste bezero batzuk aurkitzea.

3. Zure lantaldea zaintzea

Zure lankideen beharrei erantzutea.

4. Zure finantzak hobeto kudeatzea

Zenbat gastatzen eta irabazten duzun jakitea, eta zure negozioa errentagarria dela bermatzea.

5. Merkatu berriak esploratzea

Beste negozio-aukera batzuk eta bezero mota batzuk bilatzea.

6. Zure lana sinplifikatzea

Zure enpresaren eguneroko kudeaketa erraztea.

7. Eskaintzen duzun hori berritzea


Produktu eta zerbitzu sorta hobetzea eta handitzea.

8. Zure ideiak babestea

Zuk sortu edo hobetu duzuna ez duela inork kopiatzen bermatzea.

9. Hobeki erosi, biltegiratu eta banatzea

Zuhurtziaz erostea, zure biltegia antolatzea, zure inbentarioa kontrolatzea, eta produktuak emateko modua hobetzea.



Eta horretan guztian, zure negozioa bultzatzen lagun diezazuketen teknologia berriak ezagutzeko aukera izango duzu.

HAZINNOVAREKIN, ZURE ETE-AK HAUXE JASOKO DU

LAGUNTZA PERTSONALIZATUA

Aditu konprometituak eta esperientziadunak izango dituzu ondoan; zure negozioa sakon ulertuko dute, eta zure neurrira eginiko soluzioak proposatuko dizkizute zure behar zehatzei erantzuteko.

Ezagutu




Zure enpresa etorkizunerantz bultzatuko du HAZINNOVAK: berrikuntza-aukerak ahalik eta gehien baliatuko ditu, administrazio-ahalegin txikiena eginda eta adituen laguntzarik handiena edukita.

PROIEKTU ZEHATZAK ETA AZKARRAK

Proiektu berritzaileak ezartzeko aukera izango duzu, 4.000 euroko balioa duen laguntza espezializatuari esker, eta kosturik gabe. Eraitza nabariak lortuko dituzu hiru hilabeteren buruan, eta azkar egingo duzu aurrera helburuak lortzeko bidean.

PROZESU SINPLIFIKATUA

Ahaztu izapideak eta prozesu zailak. Gure eskaera azkarra eta erraza da, benetan axola duenari horri arreta eman diezaiozun: zure negozioa hazteari.



ZERTAN BERRITU NAHI DUZU?

MERKATUAREN
GARAPENA


HAZINNOVAK
honako arlo
hauetan proiektu
berritzaileak
garatzen
lagunduko dizu

PRODUKTUA

Eman bultzada zure negozioari, eskaintza berrituz. Sortu produktu eta zerbitzu guztiz berriak beste merkatu batzuk zabaltzeko, eta hobetu lehendik dituzunak bezeroen espektatibak gainditzeko; horretarako, erabili teknologia aliatu estrategiko gisa. Horri esker, lehiakideengandik bereiziko zara, diru-sarrerak handituko dituzu, eta zure enpresa indartuko duzu.

Hona hemen arlo horretan garatu beharreko proiektuen adibide batzuk:

- **Produktuak eta zerbitzuak egokitzea eta pertsonalizatzea:** egokitu zure oraingo produktuak eta zerbitzuak bezeroen behar zehatzetara, eta baliatu teknologia soluzio pertsonalizatuak emateko.
- **Merkatuen ikerketa eta produktuaren garapena:** erabili datu-analisiak bete gabeko beharrak identifikatzeko, eta gidatu produktu berrien garapena edo lehendik daudenen hobekuntza.



MERKATUAREN GARAPENA

- **Prototipatzea eta gutxieneko produktu bideragarriak (GPB):** garatu eta baliozkotu produktu- ideia berriak prozesu arin baten bidez (prototipoen diseinua eta GPB sortzea uztartuko ditu prozesu horrek). Erabili bezeroen hasierako *feedbacka*, tresna teknologiko aurreratuak erabiliz soluzioak azkar egokitzeko, eta etorkizuneko garapenetarako ikasketa baliotsuak eskuratzeko.
- **Bideragarritasun-azterketa:** ebaluatu zure ideiak teknikoki eta komertzialki egingarriak diren, aintzat hartuta teknologiak balio-proposamena nola hobetu ahal duen.
- **Negozio-ereduaren berrikuspena edo definizioa:** definitu produktu berriaren edo birdiseinatuaren balio-proposamena, baita askotariko alderdien tipologia ere (bezeroak, funtsezko bazkideak, eta diru-sarrera zein kostu iturriak).
- **Prezioen dinamizazioa:** simulatu askotariko prezio-egiturak lehiakorragoa izateko.
- **Merkaturatze-estrategia espezifikoak:** garatu marketin-planak zein produktu eta zerbitzu berriak saltzeko materialak, enpresaren merkataritza-estrategia osoan txertatuta, eta gehitu haietan ikuspegi digitala, zure xede-taldera eraginkortasunez iristeko.
- **Merkatu-balidazioa:** egin probak bezero potentzialekin zure produktu edo zerbitzu berriak onartzen dituztela berresteko, eta erabili plataforma digitalak *feedbacka* bildu eta aztertzeko.
- **Berrikuntza babestea:** kudeatu patenteen, marken eta jabetza intelektualaren erregistroa, produktu-berrikuntzak babesteko eta lehiarako abantaila bermatzeko.

MERKATUAREN GARAPENA

BEZEROAK

Areagotu salmentak eta bideratu zure enpresaren hazkundera merkataritza-estrategia berritzailea erabiliz; eta, estrategia horren bidez, fidelizatu zure oraingo bezeroak eta erakarri beste batzuk.

Hona hemen arlo horretan garatu beharreko proiektuen adibide batzuk:

- **Bezeroak identifikatu eta segmentatzea:** ulertu zein diren zure bezeroak (areago, lortu bezero posibleen datu-base bat), jakin zer behar duten eta nola erosten duten, arreta pertsonalizatua eman ahal izateko.
- **Joerek bezeroengan duten inpaktua:** adi egon zure bezeroengan eta lehiakideengan eragina duten merkaturako aldaketei, aldaketa horietara bizkor egokitze eta lehiakor izaten jarraitze.
- **Merkataritza-plan dinamikoa:** egokitu zure merkataritza-estrategiak eta salmenta-prezioak eta -kanalak merkaturako eskari berrietara.
- **Merkataritza-estrategia berritzailea:** lortu bezero gehiago eta hobetu salmentak teknika eta tresna berritzaileak erabiliz.
- **Digitalizatu bezeroekin duzun harremana:** ikasi zer teknologia digitalen bitartez hobe dezakezun bezeroen esperientzia, euskarria eta erosketa errazagoak eta atseginagoak izan daitezen.
- **Bezeroak kudeatzeko tresnak:** erabili zenbait sistema zure bezeroei buruzko datuak bildu eta aztertze. Horrek lagunduko dizu zure produktuak eta zerbitzuak hobetzen, eta zure zerbitzu-ekoizpena eta -eskaintza hobeki planifikatzen.
- **Merkataritzako agente-panela:** ebaluatu nola funtzionatzen duten zure merkataritza-ekintzek, etengabe doitzeko eta hobetzeko.
- **Marka-estrategia:** zure markak paregabea izan behar du lehiakideen aurrean, eta haren balioa posizionatu behar duzu xede-bezeroentzat.
- **Komunikazio eraginkorra:** ikasi komunikazio-plan bat garatzen, zure produktuen onurak nabarmentzeko, eta bezeroak erakarri eta atxikitze.
- **Optimizatu marketina eta salmentak:** ezarri barneko prozedurak marketin- eta salmenta-ekintzak era antolatu eta eraginkorrean garatzeko, eta zure kanpainak bultzatzeko.


MERKATUAREN GARAPENA

MERKATU BERRIAK

Areagotu zure irismena eta eraman zure negozioa hurrengo mailara merkatu berrietako aukerak esploratuz.

Hona hemen arlo horretan garatu beharreko proiektuen adibide batzuk:

- **Merkatuak esploratzea:** bereizi sektore eta eremu geografiko berriak, jakiteko zure produktuak eta zerbitzuak non izan litezkeen arrakastatsu.
- **Beharren eta joeren analisia:** merkatu potentzialen eskariaren beharrak eta joerak, bai zure oraingo eskaintzetarako, bai ideia berrietarako.
- **Merkatuak garatzeko estrategiak:** aztertu nola egokitu edo sortu garapen-estrategia berriak, posizionamendu diferentziala hartuta, merkatu berri horietako bezeroen ezaugarriekin zuzeneko lotura edukitzeko.
- **Hedapen-planak:** garatu plan zehatzak zure negozioa merkatu berrietan sartzeko, barne harturik egokitutako produktuak eta zerbitzuak abiaraztea edo *online*ko presentzia, bezeroak lortzeko kanala den aldetik.
- **Bezero potentzialen *feedback*:** ikasi bezero potentzialekin hartu-emanen egoten zure produktuek zer harrera duten eta nola hobetu ditzakezun ebaluatzeko.
- **Merkatu berrietara irekitzeko prozesua digitalizatzea:** garatu zure enpresaren presentzia digitala merkatu berrietara iristeko kanal modura.



EKOIZPEN JASANGARRIA

Handitu zure ekoizpen- eta zerbitzu- prozesuen produktibitatea eta kalitatea eta teknologia berritzaileak integratuz.

Hona hemen arlo horretan garatu beharreko proiektuen adibide batzuk:

- **Plangintza aurreratua:** diagnostikatu eta/edo optimizatu nola eta noiz ekoizten duzun; bermatu plangintza zehatz eta efizienteagoa eta aztertu azken belaunaldiko softwarea erabiltzea.
- **Ekoizpen-prozesuaren diagnostikoa eta estrategia berria (*Lean Manufacturing*):** identifikatu hobetzeko aukerak eta definitu lan-fluxuak optimizatzeko, xahuketa murrizteko eta etengabeko hobekuntza sustatzeko ibilbide orria.
- **5S metodologia:** aplikatu teknika hori zure languneak antolatuta, garbi, seguru eta produktiboago egon daitezen, jarraipen eta etengabeko hobekuntzarako tresna digitalez lagunduta.
- **Mantentze-lan autonomia:** zure lantaldeak mantentze-lanak proaktiboki kudeatuko ditu eta akatsak prebenituko ditu, denbora errealean prozesuen segimendua egiteko teknologia erabiltzea baloratzuz.
- **Ekoizpeneko *lay-out* berria:** berriz diseinatu zure instalazioaren eremua, lan egiteko modua errazagoa eta eraginkorragoa izan dadin.
- **Kostuak, energia- eta ingurumen-inpaktuak murriztea:** identifikatu ekoizpen kostuetan eta inpaktuetan nabarmen hobetzeko aukerak, datuak aztertzearen eta prozesuak automatizatzearen bidez.
- **Adierazleak eta ekoizpen aginte-taula:** diseinatu ekoizpen adierazleak kudeatzeko sistema, jarduna ebaluatzeko, erabakiak hartzea errazteko eta etengabeko hobekuntza sustatzeko, eguneroko kudeaketa egituratu baten bidez.

NEGOZIOAREN OPERATIBOA

LOGISTIKA JASANGARRIA

Jakin nola hobetu dezakezun zure bezeroei ondasunak eta zerbitzuak emateko modua, kostuak aurreztuta, ingurumen inpaktua murriztuta eta haien gogobetetze-maila handituta.

Hona hemen arlo horretan garatu beharreko proiektuen adibide batzuk:

- **Eskariaren aurreikuspen adimenduna:** ezarri datuen azterketarako tresnak, horien bidez etorkizuneko beharrei zehaztasunez aurrea hartzeko. Konfiguratu alertak inbentario orekatua edukitzeko, ez dadin egon ez gehiegizko stockik, ez faltarik, baita bezeroek eskatutakoari erantzuten zaiola bermatzeko ere.
- **Erosketa-optimizazioa:** berriz ebaluatu zure erosketa-estrategiak. Hobetu hornitzaileekiko negoziazioa jardunaren gaineko adierazleak erabiliz; sendotu harremanak, eta lortu baldintza hobeak.
- **Biltegiaren birdefinizioa:** eraldatu zure biltegiaren konfigurazioa efizientzia maximizatzeko. Ezarri diseinu-soluzioak eta prozesuak, produktuak azkar eta akatsik gabe mugitzeko, inbentarioaren kudeaketa zehatza eta fidagarria bermatuta.
- **Garraio eta banaketa hobetuak:** berraztertu eta hobetu barneko eta kanpoko logistika. Aztertu eta optimizatu entrega-ibilbideak eta zerbitzu-metodoak efizienteagoak izateko, kostuak murriztuta eta entrega-denborak hobetuta.
- **Kostuak, energia- eta ingurumen-inpaktuak murriztea:** identifikatu gastuak, ingurumen-inpaktua eta entrega-epeak murrizteko aukerak, hornidura-edo banaketa-katean.
- **Logistikaren digitalizazioa:** aztertu zer soluzio teknologiko dauden zure biltegi eta eskariak moderno, arin eta gardenagoak izan daitezen, hornidura-kate osoan komunikazioa eta jarraipena hobetuta.

TALENTUA/ PERTSONAK

Eraldatu pertsonak kudeatzeko duzun modua, ingurune motibatzaileagoa, bidezkoagoa eta etorkizunerako prestatuagoa sortzeko. Ebaluatu, birdiseinatu, komunikatu, forma eman eta fidelizatu zure enpresak behar duen talentua.

Hona hemen arlo horretan garatu beharreko proiektuen adibide batzuk:

- **Giroa eta pertsonen konpromisoa:** ebaluatu egungo egoera, zure erakundean pertsonak kudeatzeko dagoen eredia aztertu, eta lanean gogobetetzea indartzeko planak garatu.
- **Antolamendu-berrikuntza:** diseinatu beste era batera zure antolamendu-egitura, sortu lan-jardunei buruzko eskuliburuak eta barneko komunikazio-planak, eta ezarri bilerak egiteko errutina efektiboak.
- **Rolak eta erantzukizunak:** eguneratu lanpostuen deskribapenak, eta argi zehaztu profilak, autonomia-mailak eta erantzukizunak.
- **Jardunaren ebaluazioa eta garapena:** ezarri zenbait metodo lantaldearen errendimendua eta gaitasunak baloratu eta indartzeko.
- **Talentuaren kudeaketa:** garatu ezagutza behar bezala transferituko dela ziurtatzeko tresnak, belaunaldi-aldaketarako eta langileen etorkizuneko irteeretarako prestatuz. Adinaren kudeaketa. Funtsezko lanpostuak eta profesional kritikoak identifikatzea. Ihes egiteko arrisku-matrizea. Ezagutzaren kudeaketa proaktiboa.
- **Hobetu zure erakundearen komunikazioa:** diagnostikatu eta diseinatu barne-komunikazioko prozesuak hobetzeko estrategiak. Hobetu, garatu eta ezarri komunikazio-tresnak.
- **Prestakuntza eta garapena:** ezarri prestakuntza-beharrak diagnostikatzeko eta ekintza eraginkorrak hedatzeko prozesuak, hola nola ongietorriko programak diseinatzea eta garapen-programak definitzea eta ezartzea.
- **Ordainsari bidezkoa eta malgua:** ezarri soldata finkoak eta aldakorak uztartuko dituzten ordainsari-politikak, eta egin auditoretzak ekitatea bermatzeko.
- **Ekitatea eta inklusioa lan arloan:** diseinatu eta ezarri askotariko lan ingurune inklusiboak sustatzen dituzten proiektuak, pertsona guztien berdintasuna bermatuz, ekitate-diagnostikoen bidez, baita politikak eta estrategiak garatuz eta barne-prozesuak berrikusi eta egokituz ere.
- **Trantsizio kulturala eta balioen lerrokatzea:** diseinatu eta ezarri balio korporatiboak definitzeko eta finkatzeko sistemak, ikuspegi estrategikoarekin lerrokatzen direla ziurtatuz.


EFIZIENTZIA KUDEAKETAN

EKONOMIA- ETA FINANTZA- KUDEAKETA

Lortu zure enpresaren finantzei buruzko ikuspegi argia (gastuak, diru-sarrerak eta errentagarritasuna), zure negozioak dirua non irabazten eta galtzen duen kontrolatzeko, aukerak eta erronkak identifikatzeko, eta erabaki estrategikoak zehaztasunez hartu ahal izateko.

Hona hemen arlo horretan garatu beharreko proiektuen adibide batzuk:

- **Kostu-kontrolaren optimizazioa:** berrikusi eta hobetu kostuak nola kalkulatu eta murrizten dituzun, errentagarritasuna handitzeko.
- **Produktu/zerbitzuaren araberako errentagarritasun-mapa:** aztertu eta ikusi zein den produktu eta zerbitzu bakoitzaren errentagarritasuna, zure katalogoko indarguneak eta ahulguneak zein diren identifikatzen laguntzeko.
- **Diruzaintza-kudeaketaren hobekuntza:** zaindu gertutik zure gaur egungo eta etorkizuneko likidezia, finantzaketari eta inbertsioari buruzko erabaki proaktiboak errazago hartzeko.
- **Finantzaketa tresna berriak:** berrikusi zure banku-finantzaketa eta zorraren egoera (ratio nagusiak, mugak, etab.) Ezagutu finantza-tresnak, laguntzak, dirulaguntzak, etab.
- **Etorkizuneko agertokiaren simulatzailea:** baloratu zure etorkizuneko planek zenbait agertokitan zer finantza- inpaktu duten, egonkortasuna bermatzeko.
- **Adierazleak eta finantzen agente-panela:** sortu panel interaktibo bat funtsezko datuen berri izateko, eta, horren bidez, zure enpresaren osasun ekonomikoari buruzko ikuspegi osoa izateko begirada bakar batez.
- **Finantzen digitalizazioa:** ezagutu zer tresna digital izan ditzakezun lagungarri zure finantza-kudeaketa berritzeko eta automatizatzeko (ordainketak eta datu-analisiak, besteak beste).
- **Adimen Artifiziala Finantzaketan:** aztertu nola txertatu AA zure negozioaren finantza informazioaren analisian erabakiak hartzeko.
- **Negozioen balorazioa:** ezagutu jarduerak eta enpresak baloratzeko metodoak eta ereduak. Ikasi inbertitzaileentzat enpresa erakargarria izaten.



ADMINISTRAZIO- PROZESUAK

Irauli zure enpresaren barne-funtzionamendua. Efikazia handiagoz egin funtsezko zenbait jarduera (hala nola nominak, dokumentuak erosketak, inbentarioak eta proiektuak kudeatzeko modua eta ordainketen eta kobratzen segimendua). Gehitu berrikuntzak eta tresna modernoak ataza horiek sinplifikatu eta bizkortzeko.

Hona hemen arlo horretan garatu beharreko proiektuen adibide batzuk:

- **Prozesuen eta lan-fluxuen optimizazioa:** berraztertu administrazio-prozesuak erredundantziak identifikatu eta ezabatzeko, bai eta eragiketa-prozesuekin zer lotura duten ere, lan-fluxua optimizatzeko.
- **Rolak eta erantzukizunak argitzea:** segurtatu zure lantaldeko kide orok badakiela zer ataza, rol eta erantzukizun dituen, eta haiek egiteko behar diren baliabideak eskura dituela.
- **Metodologia arinak hartzea:** ezarri azkartasuna eta talde-lana bultzatuko dituzten lan-estrategiak.
- **Proiektuen kudeaketa efektiboa:** gehitu proiektuak kudeatzeko praktika sendoak, hobekuntza eta eraldaketa helburu duten ekimen guztiak planifikatu, gauzatu eta ikuskatzeko.
- **Berrikuntzaren kudeaketa:** sortu hobekuntzak eta ideia berriak etengabe bilatzea sustatzen duen prozesu bat.

EFIZIENTZIA KUDEAKETAN

- **Kalitatea eta etengabeko hobekuntza bermatzeko programa:** ezarri kalitatea kontrolatzeko praktikak, eginiko lanaren estandarra ziurtatu eta handitzeko.
- **Dokumentu-kudeaketa aurreratua:** antolatu eta eskuragarri eduki dokumentu garrantzitsuak, dokumentuak kudeatzeko sistemen bitartez.
- **Adierazleak eta aginte-panela operatiboa:** garatu adierazleak eta egin haien jarraipena zure enpresaren lan-jarduna zenbateraino den eraginkorra neurtzeko, eta identifikatu hobetzeko moduko arloak.
- **Administrazio-atazen automatizazioa:** gehitu prozesu errepikakorrak automatizatzeko tresnak, lantaldeak aukera izan dezan balio handiagoko atazak egiteko.
- **Administrazioaren digitalizazioa:** hautatu eta ezarri enpresaren behar espezifikoak egokitzen zaizkien irtenbide teknologikoak (ERP eta CRM).
- **Adimen Artifiziala Administrazio Prozesuetan:** aplikatu AA datuen kudeaketa, enpresaren errealitatean eta inbertsio-ahalmenean oinarritutako gomendioak lortzeko.
- **Prozesuen automatizazio robotikoa (RPA):** garatu prozesuak automatizatzeko plana eta ezagutu ondoen egokitzen diren tresnak.

HAZINNOVA ESKATZEA OSO ERRAZA DA

HAZINNOVAri esker, erraza da berritzen
hastea 3 urrats hauen bitartez

**1.
Egiaztatu hautagarria
zaren**

**Begiratu ea parte har
dezakezun** eta zer agentek
lagun diezazuketen.



**2.
Aukeratu eta
harremanetan jarri**

Hautatu zure eragilea, hitz
egin harekin, eta argi zehaztu
zer behar duzun.



**3.
Erraz eskatu**

Erabili SPRIren aplikazioa
zure eskaera erraz
bidaltzeko.



Beharrezko informazioa:

- Enpresaren IFZ eta izena (sozietate-izena)
- Eragileak jakinarazitako sarbide-gakoa
- Enpresaren kontakturako datuak (helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, webgunea)
- EJSN/JEZ (altako datarekin)
- Eratze data (uuuu/hh/ee)
- Banku-kontua (titularra, IBAN)
- Legezko ordezkariaren datuak
- Harremanetarako pertsonaren datuak
- Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillari buruzko txostena
- Salmentak eta balantzea (2023, 2024)
- Minimis laguntzak eta proiektu bererako beste laguntza batzuk


Enpresak ez badu baimena ematen SPRIk modu zuzenean egiaztapena lortzeko, beste agiri batzuk aurkeztu beharko ditu.

Zure eskaera aurkezteko
epea bukatuko da

**2025eko
urriaren
29an**

EGINGO AL DUGU BERRIKUNTZA-PROIEKTU BAT?

HAZINNOVArekin erraza da



ESTEKA INTERESGARRIAK

Erabiltzailearen eskuliburua



Gida erraza aplikatiboa erabiltzeko



Urrats hauen bitartez bidea erraztuko dizugu, zure ETEa berritzaileagoa eta lehiakorragoa izan dadin.

Ezagutu HAZINNOVAren eskutik emaitzak hobetu dituzten ETE batzuk

EAEko 1.045 ETEk baino gehiagok lortu dituzte jada, HAZINNOVA programaren laguntzari esker, berritzeak ekarritako onurak. ETE horiek emaitza zehatzak eta azkarrak erdietsi dituzte.

Inspiratu haien arrakasta-istorioekin.

Ezagutu gure **Berrikuntza Kasu Praktikoen Bankua:** egiaztatuko duzu 86 enpresak negozioak eraldatu dituztela eta arrakasta-maila berriak erdietsi dituztela. Aukera duzu haien proiektuei buruzko informazioa deskargatzeko, bai eta, nahi izanez gero, berrikuntzen buru izan direnekin zuzenean harremanetan jartzeko ere, esperientziak eta aholkuak elkarri jakinarazteko.

Jardunbide egokiak
HAZINNOVA



Egin lehen urratsa zure
berrikuntzarantz:

www.spri.eus/es/ayudas/hazinnova

Informazio gehiago: www.spri.eus